

ITSASOARI BEGIRA

Edurne Bastida Larrea

Azpeitia

Sakonetan nago, Zumaia eta Deba arteko itsaslabarrean. Milioka urtetan itsasoak bortizki higatutako harrizko hondartza lakarrean, itsasoari begira. Haizeak ufadan kotoi eta ehun leuneko lainoak daramatza, artile grisaxkakoak mendebaldetik San Telmo aldera gailenduz.

Zenbat oroitzapen bat-batean!

Duela bospasei urte hasi zen guztia. Bost, lehen aldiz ingresatu eta diagnosia eman zidatenetik. Baina ordurako sintomak argiak ziren. Min nuen hezurretan, min giharretan. Edozertan zela ere oso nekatuta sentitzen nintzen. Eta hala madarikatutako egun batean Donostiako ospitalera eraman ninduten gau txar bat pasa eta gero.

“Leukozito, linfozito, plaketa...” eta beste hainbat hitz entzun nizkion medikuari gaixotasuna amari azaldu nahian. Eta matraka guzti hura “leuzemia” hitzarekin amaitu zuen.

– Eta zer da bada leuzemia? – lehen aldiz entzun eta bizitza osoan lagun izango nuen hitz hartaz galdetu nion.

– Odola Athletik futbol taldearen elastika modukoa da – hasi zen esplikatzen medikua.

– Baina ni Errealekoa naiz – moztu nion lehor.

Apur bat lotsaturik, odola globulu gorritz eta zuriz osaturik zegoela azaltzen ahalegindu zen. Nire kasuan globulu zuriak neurrigabeki ugaltu zirela, eta arazoa konpondu behar zela.

– Kontatzen al dut zurekin?– eta eskua luzatu zidan despedida gisa.

Leuzemia odoleko minbizia da. Hautzarroan agertzen den minbizirik ohikoena. Hori izan zen behintzat ulertu nion gauza bakarra. Mila bider galdera egin nion nire buruari. Zergatik niri? Hamahiru urte baino ez nituen, eta bizitzaren loterian saririk krudelenarekin topatu nintzen.

Ospitalean 222 gelan sartu ninduten. Sartu eta nire begiak agure baten aurpegian lekutu ziren. Arraroa iruditu zitzaidan gelan agure batekin jar-tea, baina ez nintzen kexatu. Gizon berezia ematen zuen benetan. Gurasoei gibelesko minbizia zuela entzun nien, sendagaitza. Baina itxuraz ondo zegoela zirudien.

Begi ilun eta sudur handiaren azpian aho luze eta zimurrez beteriko aurpegia ezkututzen zen. Bixente izena zuela esan zidan nire guraso eta familiar guztiak gelatik alde, eta aurkezpenak egin genituenean. Hirurogei urte zeuzkala. Eta bere bizitzari buruz galderarik ez egiteko, inori ez baitzion errukirik eman nahi.

– Eta nor zara zu, gaztetxo? – esan zidan irribarre gozo bat ahoan zuela.

– Iulen dut izena – esan nion hitz egiteko gogorik gabe. Isilik geratu ginen biok. Eta orduan Benito Lertxundiren “itsasoari begira” abestia abesten hasi zen, tenor baten ahotsarekin. Inoiz ez nuen inor halako sentimenduarekin abesten entzun.

– Azken arnasa eman nahi nuke, itsasoari begira...

Ederra zen abestia, are ederrago berak abestu zuen moduan.

– Benito Lertxundiren abestien zale amorratua naiz. Bere musika entzun eta abestea baino ezer ederragorik ez dago Iulen. Ikusiko duzu zer ondo pasatuko dugun hemen pasa behar duzun denboraldira – keinu maltzur batez, gaineko bata kendu eta ohera sartzen zelarik.

Kimioterapia saioak oso gogorrak izan ziren. Denborarekin Bixente ezagutzen joan nintzen. Une oro laguntzen zidan.

– Zertarako behar duzu ilea? Egon lasai, haziko zaizu berriro – erantzun zidan behin ispilu aurrean disgustuko keinua antzeman zidanean.

Bixenterekiko estimua handituz zihoan, ospitalean pertsonarik garrantzitsuena bilakatu arte. Bizitza sarri gogorra dela erakutsi zidan. Eta nirea eta berea bereziki. Batzuei Gabonetako loteria tokatzen zaiela, eta beste batzuei ifrentzua. Minarekin bizitzen, eta bizitzako gauza txiki guztiak baloratzen irakatsi zidan: familia, lagunak, momentu oro... Gure bizitza zoriontsu ala triste egiten duten gauza txiki eta pertsona guztiak baloratzen. Eta batez ere, egun berri bat bizitzeko

gogoia aldarrikatzen. “Hurrengo egunean ez baduzu borrokatu nahi, hilda zaude”.

Disfrutatu, barre egin, sentitu, gozatu, bizi, bizi,... Min-biziari mina, tristura, eta momentu txar-
rrak kendu. Minarekin bizitzen ikasi behar nuen, eta mina gutxietsi. Eta halaxe egin nuen, Bixentek erakutsi bezala.

Zenbat barre eta zenbat momentu ahaztezin bizi izan genituen ospitale barruan, nahiz kanpoan. Erizain bati bata zuria sukaldean papera biltzeko kontainerrean ezkutatu genionean. Edota eguraldi ona egin zuen batean, ospitaletik irten eta nudisten hondartzan aske eta lasai ibili ginenekoa. Benito Lertxundiren kontzertura alde egin genueneko hura ere ahaztezina izan zen. Aiztoaren mihi gainean, erizain bakarren batek harrapatzeko zorian betiere. Haiek gauak, haiek egunak!

Baina guk gure modura bizi nahi genuen. Zoroen bizia egin nahi genuen. Nahiko sufrimendu genuen bestela ere. Barre egitea tokatzen zitzaigun, disfrutatu. Hurrengo egunean borrokatu ahal izateko. Ez zegoen beste erremediorik! Egun gogor-
rrak ere izan ziren, Benitoren abestiekin leunduak. Benito gure laguna zen, gure solas-lagun fidela.

Urtea pasa nuen Bixenteren ondoan, eta jada ilea irteten hasi zitzaidan.

– Ia Benitok adina ile duzu – esan zidan behin batean.

Osatzen ari nintzen eta horrek izugarri pozten ninduen. Etxera bueltatzeko kontua ere entzun nuen lehen aldiz. Bixente ordea okerrera zihoan.

Hasieran mantso, baina gerora azkartuz gainbehera.

– Borrokatzeko indarra galtzen ari naiz – esan zidan irribarre bat egiten ahalegintzen zelarik.

Nire despedida eguna ere hurbiltzen ari zela laster ohartu zen.

– Iulen jatorra izan, eta zuzen jokatu.

Hamabost egun etxean pasa eta analisiak egitera joan nintzenean, 222 gelara hurbildu nintzen, baina han ez zegoen Bixente. Bere irribarra ez zen ageri. Benitoren argazkia ere falta zen bere ohe mahaian.

– Iulen – hurbildu zitzaidan nire erizain bat izana – Bixentek ohar hau utzi zuen zuretzat. Eta papertxo bat luzatu zidan.

Eta orain hemen nago itsasoari begira, Bixentek utzi zidan eskutitza irakurtzen.

“Nahiz eta zure ondoan ez izan, nahiz eta Benitoren kankak elkarrekin ez entzun, gogoratu nire bihotzean edukiko zaitudala. Goibel zaudenean, gogoratu une on guztiak, bizitako guztia, eta egin aurre beti arazoei biok ikasi dugun bezala.

Egun osoa gutxi litzateke zu niretzat izan zarena kontatzeko. Eta behin bada ere eskerrak eman behar dizkiot nire gaixotasun madarikatu honi. Berari esker zu ezagutu eta azken hilabeteak zurekin bizitzeko aukera eman didalako. Gauza guztiek dute alde onen bat. Maite haut mutiko!

– Ai itsasorik ez bageneuka, zeri so negarrez hasi...”

Papertxoa tolestu eta hamaika zatitan puskatu eta gero, airera jaurti nuen haizeak zati bakoitza eta guztiak bere magalean hartu, eta itsaslabarren aurka jaurtitzen zituelarik. Bat-batean, katedral handi bateko organoa bailitzan, Benitoren kantaren doinuak ernetzen hasi ziren labar artetik.

“Azken arnasa eman nahi nuke
eguna hiltzen ari da,
Azken arnasa eman nahi nuke
bertsoak entzuten dira,
azken arnasa eman nahi nuke
kantari nator herrira,
azken arnasa ematen dugu
eguzkitik eguzkira,
azken arnasa eman nahi nuke
itsasoari begira.”

Benito eta Bixenteren ahots gozoekin...

– Ai itsasorik ez bageneuka, zeri so negarrez
hasi...”